

---

Bergarako historiaren sintesi labur  
eta dibulгатiboa, 750. urteurreneko  
ekitaldien oinarri gisa moldatua.

Egilea:

Lourdes Odriozola Oyarbide (*Historian doktorea*)

Laguntzailea:

100  EUSKO  
IKASKUNTZA  
Asmoz ta Jakitez

Argitaratzailea: Bergarako Udala.

LG zk.: ss-175-2018



## 1. HISTORIAURREA

-

## 2. ERDI AROA

-

## 3. ARO MODERNOA

-

## 4. XIX. MENDEA

-

## 5. BERGARA MODERNITATERANTZ (1860-1936)

-

## 6. GERRA ZIBILA

-

## 7. FRANKISMOTIK DEMOKRAZIARA

-

---

# 1

---

## HISTORIAURREA

-

---

# 1. HISTORIAURREA

## 1.1. Eneolitoa / Brontze Aroa

### 1.1.1. Testuingurua

Bergara lurralde franko-akitaniarrean dago, eta oso aspalditik bizi izan da gizakia bertan. Hori ez da kasualitatea izan, inondik ere.

Oraindik ez da aurkitu Erdi Paleolitoan, Goi Paleolitoan, Epipaleolitoan eta Neolitoan era iraunkorrean bizi izan ziren giza taldeen ebidentziarik. Hala ere, haraneko iparraldean eta hegoaldean aro horietako aztarnategi ugari aurkitu dira, eta pentsa daiteke haietatik giza talde nomadak iritsiko zirela, bizirik irauteko beharrezkoak zituzten gauzak lortzeko asmoz.

Bergarako udalerrian aurkitu diren aztarna arkeologikoez egiaztatzen dutenez, Metalen Aroan (eta, zehatzago, Eneolitoan edota Brontze Aroaren hasieran, hots, K.a. 2500-1800 aldian) giza talde batzuk iraunkorki bizi ziren. Garai hartan, kultura-aldaketa ugari gertatu ziren. Giza taldeak herrixketan bizitzen hasi ziren, eta aurrerapen handiak egin zituzten tresnak egiteko eta hobetzeko bidean.

Eta horren hasieran, egungoaren oso antzeko kliman bizi ziren gizakiak, eta, uste denez, landareen ziklo begetatiboa ere egungoaren berdin antzekoa izan zen. Ingurumen-baldintza egoki horiei esker, nekazaritzak indar handia hartu zuen egungo Euskal Herriko eremu zabal eta lauetan, eta giza taldeak sedentario bihurtzen hasi ziren. Hala ere, gure ingurunean, oraindik, artzaintza-izaera nabarmeneko taldeak bizi ziren eta ekonomia harrapakaritzaren ezaugarri batzuek bizirik zirauten.

Urte-sasoiko transhumantzia deritzona egiten zuten, hau da, larre bila eramaten zituzten artaldeak haranetatik mendi-gailurretara udaberri/uda partean eta alderantziz udazken/neguan. Horren ondorioz, hainbat kultura eta gizarte-kolektibitate harremanetan jarri ziren, eta

elkarren arteko hizkuntza-harremanak, kultura-harremanak eta harreman etnikoak estutu eta sendotu egin ziren.

Garai hartan, metala urri samarra zen oraindik, eta laneko tresnak egiteko baino ez zen erabiltzen. Horregatik, etxeko tresneria zeramikazko eta metalezkoak ez ziren ontzietan eta lanabesek osatzen zen. Hori bai, zeramikazko ontzietan, itxura aldetik, aberastasun handiagoa somatzen da.

Hileta errituen fenomeno da aldi horretako alderdirik deigarrienetako bat. Hildakoak trikuharri izeneko eraikuntza megalitikoetan lurperatzeko ohitura zuten. Trikuharriak egiteko, harri-bloke batzuk lurrean bertikalki sartu eta, estalki gisa, haien gainean lauza batzuk jartzen zituzten horizontalki. Era horretan, ganbera bat sortzen zuten eta bertan barruan, ehorzketa indibidualak edo kolektiboak egiten zituzten. Hildakoaren ondoan ostilamendu xume bat ipintzen zen zeramikazko ontzietan, harrizko eta metalezko objektuek, harri leuneko aizkoratxoek, kutunez eta apaingarriez osaturik. Ohikoa izaten zen trikuharria tumulu batez estaltzea.

Trikuharriez gain, tumuluak (hots, harriz eta lurrez egindako aglomerazio sinpleak) ere erabiltzen ziren ehorzketak egiteko.

Ehorzketa-mota horretako bi adibide ditugu Bergaran: Udala-Intxorta eta Elosua-Plazentzia.

#### 1.1.2. Udala-Intxortako eremua

Kanpazarren eta Angiozarren artean dagoen eremuan dago eta *Irutontorreta III*, *Goinzari Zelaia*, *Lasartegain* eta *Tranpaluarri* tumuluek osatzen dute. Horiez gain, beste bi tumulu desagertutat eman dira: *Irutontorreta Mendebaldea* eta *Irutontorreta Ekialdea*. Ez da egin tumulu horien prospekzio arkeologikorik.

#### 1.1.3. Elosua-Plazentziako eremu megalitikoak

Haranaren eskuinaldean dago, Irimo eta Karakate mendien arteko gailurreria luzean, eta hainbat tumuluz eta trikuharriez eta menhir batez osatuta dago.

Jose Migel Barandiaranek aurkitu zuen 1920-1921 inguruan. Ondoren, Telesforo Aranzadi-ekin eta Enrique Egurenekin lankidetzan, bertako prospekzio arkeologikoak egin zituen. Zehazki, honako hauek aurkitu edo ikertu zituzten: *Agerreburu* eta *Keixetako-Egiya Hegoaldea*, *Irukutzeta* eta *Aizpuruko-Zabala* trikuharriak; horietan, giza aztarnak, zeramika zatiak, harri leuneko aizkoratxoak, suharrizko kirten eta hegaldun gezi punta bat, bi marruska, suharrizko triangelu eskaleno bat, suharrizko hainbat printza, disko-formako hezurrezko aleak eta azeri baten masailzurra aurkitu zituzten. Miatu zituzten baita ere *Mauketa*, *Keixetako-Egiya*

---

Iparraldea eta *Kutzebakar* tumuluak; horietan, suharrizko trapezio asimétriko txiki bat, harri beltzez egindako bi lepoko-ale, disko-formako hezurrezko aleak eta giza garezur baten zati bat aurkitu zituzten.

Orain dela gutxi, 2012an, *Arribiribilleta* menhertzat jo zen, eta 2014an berriro jaso.

Horiez guztiez gain, tumulu eta trikuharri hauek daude megalitotegi horretan: *Trekutz* (Antzuola), *Keixeta* (Azkoitia), *Nasigo-goena* (Soraluze), *Pagobedeinkatu* (Soraluze), *Aizkoin* (Soraluze), *Atxolintxiki* (Soraluze-Elgoibar), *Atxolin* (Soraluze-Elgoibar), *Iruiya* (Soraluze), *Sabua* (Soraluze-Elgoibar) eta *Gizaburua* (Soraluze-Elgoibar).

Amaitzeko, aurkikuntza bakan bat aipatu beharra dago: harri leunezko *Urrupain-gaineko* aizkora (Ubera).

## 1.2. Burdin Aroa eta erromanizazioa

Burdin Aroa aldaketa handi eta sakonen garaia da. Europatik hizkuntza indoeuropearrak hitz egiten zituzten giza taldeak iritsiko dira. Beren teknika garatuagoekin eta hileta erritu berrieekin (errauspena praktikatzen zuten), beren hizkuntzekin, e.a., bertoko populazio zaharrarekin topo egin zuten gizarte konplexuagoak sortuz..

Ezer gutxi dakigu Deba haranean Burdin Aroan gertatutakoaz. Azken aldian, Bergaratik nahiz iparraldean zein hegoaldean, aurkitutako aztarna arkeologikoez agerian utzi dute mendi gainetan hainbat kastro eraiki zirela. Bertako ikerketek ea argi gehiago ematen diguten.

Deba ibaiak badirudi pasabide gisa jokatu zuela, eta hori frogatzera datoz Axtrokin (Eskoriatzan) aurkitutako urrezko ontziak.

Erromatarren garaiko Plinio, Mela eta Ptolomeoren testuei esker, badakigu lurraldea hainbat tributan zegoela banatuta. Diotenez, barduliarren eta karistiarren arteko muga ezartzen zuen Deba ibaiak.

Erromatarren garai kolonialarekin gauza bera gertatzen zaigu. Kasu horretan ere, aztarna arkeologikoak oso urriak dira haranean, eta are urriagoak Bergaran.

Hala ere, badira hainbat toponimo (Lamariano, Amatiano, Paternitia –Partaitti-, Urrupain, Marindano, Lutxurdiano...) ikerketa sakona egitera gonbidatzen dutenak, hobeto jakin ahal izateko noraino iritsi zen erromatarkuntzaren eragina udalerrian.

---

# 2

---

## ERDI AROA

-



## 2. ERDI AROA

### 2.1. Villanueva de Vergara hiribilduaren sorrera

Begararen lehen aipamen dokumentala XI. mendekoa da, Nafarroako Erresumaren parte zen garaikoa. Aipatzen da Sancho izeneko batek (Zianaren nebak) Begarako “Arizetako monasterioko” ermita 1050. urtean San Juan de la Peñako monasterioari eman ziola dohaintzan. Bestalde, 1200. urte aldera, defentsarako gaztelu bat zegoen Elosuan. Oraindik geratzen da aztarnaren bat.

Gaztelak egungo Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeak menderatu ondoren, Alfontso X.a Jakitunak *Villanueva de Vergara* hiribildua sortu zuen Ariznoan, 1268ko uztailaren 30ean, eta “Gasteizko Forua” eman zion. Horren bidez, Gasteiz eta Debako eta Mutrikuko portuak lotzen zituen Errege Bidean etapa seguru bat sortu nahi izan zuen. Hortaz, merkataritza-izaera eta artisau-izaera garbiarekin sortu zen hiribildu berria.

Sorrerako hiri-gutunak eskubide eta pribilegio batzuk eman zizkien biztanleei, baita jaun feudalei aurre egiteko lege-estaldura bat ere. Aldi berean, erregeak ere boterea sendotu zuen jaun horien aurrean (haietako asko Nafarroako koroaren aldekoak izan ziren XV. mendera arte).

Horrela sortutako hiribilduak izan ziren Gipuzkoako lurralde-antolamenduaren oinarria. Europarekin eta penintsulako gainerako lurraldeekin alderatuta, prozesu hori berandu gertatu zen Gipuzkoan. Zehazki, 1180. urtean hasi zen, Nafarroako Antso Jakitunak Donostia sortu zuenean, eta 1453. urtean amaitu zen, Oiartzungo bailarak hiribildu-izaera hartu zuenean.

Begara sortu ondoren, muga juridikzionala zabaldu egin zen Oxirondo (1348) eta Uzarraga (1391) gaineratu zitzaizkionean. Hala ere, Uzarraga behin betiko desanexionatu zen 1629. urtean, eta Oxirondo ere saiatu zen handik urte batzuetara, baina ez zuen lortu.

---

## 2.2. Erdi Aroko hiribilduaren morfologia

*Villanueva de Vergarako* Erdi Aroko lehen kokaguneak oinplano angeluzuzeneko gunek txiki bat hartzen zuten. Gune hori hiru kalek —Goenkale, Artekale eta Barrenkale— zeharkatzen zuten, eta dimentsio bereko 230 orubetan banatuta zegoen. Bertan, 70 biztanle inguru bizi ziren. Hiribildua harresi batez mugatuta zegoen, sute eta izurritez babesteko, eta bost ate zituen. Urte batzuen ondoren, urbanizatutako lurraldea iparralderantz eta hegoalderantz zabaltzen zen, Errege Bidearen inguruan, eta Bidekurutzeta eta Masterreka (Oxirondo) errebalak sortu ziren.

Hiri-multzoko arkitektura-elementurik garrantzitsuenak San Pedro eliza zen. Hegoaldean kokatu zen, etxe-uharteek osatutako laukizuzenetik kanpo, eta defentsa-sistemaren parte izan zen.

Etxeak orubearen zabalera egokituta eta orubearen sakonera okupatuta eraiki ziren, baratzek txiki baterako leku bat utzita. Geroago, presio demografikoaren ondorioz, orubeak zatikatu eta etxebizitzak gorantz eraiki behar izan zituzten. Hasiera batean, zurez eraiki zituzten, baina batzuek harrizko hormak zituzten lehen solairuraino. Erdi Aroko aztarnak Zubieta kaleko 38. zenbakian, Goenkaleko 2. eta 3. zenbakietan, Bidekurutzeta kaleko 32. zenbakian eta Etxeluzean aurkitu dira.

XV. mendetik aurrera, hiri-barrutian finkatu ziren landa-leinuak, eta bertan ezarri zituzten etxebizitzak. Horrek zuzeneko eragina izan zuen hiribilduaren paisaian, landa-dorreen arkitektura hiri-egiturara egokituta eraiki baitzituzten beren etxebizitzak. Dorre horiek harriz eraiki ziren oso-osorik, baina zurezko edo kare eta harrizko eraikinetan txertatuta egon zitezkeen. Haietatik, Laudantz dorrea, Usondo etxea eta Gorostegi dorretxea baino ez dira geratzen.

Haiez gain, badakigu errebaletan beste dorre batzuk izan zirela, hala nola Zabala eta Jauregi izenekoak edota Egino-Mallea maiorazkoaren jabetzakoa izan zena.

## 2.3. Udalaren gobernua eta antolamendua

Bergarako udal-antolamendua “Gasteizko Foruan” xedatutakoaren arabera izan zen. Foruari jarraikiz, alkatea zen hiribilduko agintari gorena eta erregearen ordezkaria, kontzeju irekiak egiten ziren, biztanle guztiak “kapareak” ziren eta muga jurisdikzionala ezartzen zen.

1490. urtean, Udal Ordenantzak idatzi ziren. Haien bidez, udal-gobernuen osaera eta aukeratzeko sistema arautu ziren, besteak beste. Gobernu horiek urtero berritzen ziren, San Migel egunean.

---

## 2.4. Gizartea eta ekonomia

*Villanueva de Vergara* hiribilduaren sorrerak aldaketa handiak eragin zituen gizarte-antolamenduan, eta bi errealtate sortu ziren, guztiz desberdinak: landa-eremua eta hiri-eremua edo harresi-barrua.

1268. urtera arte, landa-inguruneari lotuta egon zen biztanleria. Gizartea gizabanakoetan, familietan eta gizarte-taldeetan zegoen antolatuta (“jauntxoak» edo gizon aberatsak, zaldunak eta “gizon onak”, nekazariak eta “morroiak”), eta guztiak ahaide nagusiek kontrolatzen zituzten, hau da, leinuetako lehen semeen lineak edo linea nagusiak.

Hiri-populazioa 1268. urtean sortu zen Bergaran, eta, pixkanaka, landa-populazioak baino kopuru handiagoa izan zuen. Harresi barruko biztanle guztiak berdintasun juridikoa zuten, erregeak “kapareztat” hartzen zituen (hau da, zaldun edo pertsona libretzat), eta beren interesak defendatzeko baliatu zituzten harresiak. Errebalak sortu zirenean, klase bakarraren ezaugarri hori galdu egin zen, baldintza sozioekonomiko desberdineko familiak finkatu baitziren bertan (landa-leinuak, aberats berriak, jabe txikiak, merkatariak eta artisauak), hiribilduan bizitzeak eskaintzen zituen abantailak erakarrita. Abantaila horien artean, Alfonsito X.ak 1273an emandako zerga-salbuespena azpimarra daiteke.

Dikotomia hori inguruko ekonomian ere islatu zen. Landa-inguruneko biztanleek nekazaritzan eta abeltzaintzan ziharduten nagusiki, eta harresi barrukoek, berriz, merkataritzan eta artisau-jardueretan (ehunak, ganibetak, guraizeak, nekazaritzako tresnak eta armak egiten, funtsean). Ez dugu ahaztu behar erregeak Gaztelako Erresumako barneko eta kanpoko merkataritza bultzatzeko helburuarekin eman ziola hiri-gutuna Bergarari, eta gure hiribildua estrategikoki kokatuta zegoela Gasteiz eta Kantauri Itsasoko portuak lotzen zituen bidean.

Testuinguru horretan, Bergarak antzina-antzinatik izan zuen azokak astero (astelehen, asteazken eta ostiraletan) egiteko eskubidea. Azoka, 1699. urtera arte, «kale estu batean» (egungo Bidekurutzeta kalean) egin zen. Urte horretan, Kontzejuak Plaza Berria eraikitzea erabaki zuen. Etxabeetan, gainera, tabernak, okindegiak, artisau-jardueretarako lokalak eta dendak zeuden.

Bi ekonomia-mota horien agerpenaren ondorioz, gizarte-harreman berriak ez ezik, gatazkak ere sortu ziren. Izan ere, hiriguneeen sorrerarekin batera, erabateko aldaketak gertatu ziren familian eta leinuetan oinarrituta zegoen eta ahaide nagusiek zuzentzen zuten gizarte-antolamenduan.

Gipuzkoan, leinuak interes ekonomikoen arabera banatu ziren bi bandotan: ganboatarren

---

—Gaztelako erregearen eta merkataritza-ekonomiaren aldekoak ziren— eta oinaztarrenean — Nafarroako Koroa eta nekazaritza-ekonomia defendatzen zuten—. Bi bandoen artean, borroka bortitzak gertatu ziren familiaren ondarea zaintzeko, ohorea defendatzeko eta lurrak babesteko; izan ere, hiribilduak sortu zirenean, Gaztelako erregearen kontrolpean geratu zen lurren zati bat.

Bergaran, oinaztarren bandoko leinuak zeuden. Alde batetik, ozaetarrak zeuden; udalerriko leinurik zaharrena zen, eta Deba ibaiaren ia haran osoa kontrolatzen zuen, haranak merkataritzan zuen garrantzia zela eta. Bestetik, gabiriarrak zeuden; Bergarakoak ziren jatorriz, eta lehen sektoreko jarduerak zituzten diru-sarrerak lortzeko iturri nagusi. Ahaide nagusi beraren mende bazeuden ere, ozaetarren eta gabiriarren arteko borrokek ohikoak eta ugariak izan ziren. Batzuek zein besteek udal-gobernua kontrolatu nahi izan zuten, eta egoera hori 1497. urtean amaitu zen. Izan ere, urte horretan Udal Ordenantzak jarri ziren indarrean, eta bandoak guztiz baztertuta geratu ziren kontzejuen osieran.

# 3

---

## ARO MODERNOA

-

---

## 3. ARO MODERNOA

### 3.1. Garai berriaren hasiera

Izurriteen urteak gainditu, Erdi Aroaren amaierako uzta txarrak desagertu eta gerra ugariak (hala nola ahaide nagusien *Bando Gerrak*) amaitu ondoren, egonkortasun politikoko eta oparotasun ekonomikoko aldi bat hasi zen Errege-erregina katolikoen erreinaldian. Itsas ibilbideak aurkitu eta kontrolatu zituzten eta hazkunde demografikoa gertatu zen.

Egoera on horrek aukera ugari eskaini zizkien Bergarako biztanleei. Horregatik, Gipuzkoako beste udalerrri askorentzat bezalaxe, horrek guztiak garai baten hasiera ekarri zuen. Aldaketa nabarmenak gertatu ziren landa-paisaian eta hiri-paisaian, demografian, ekonomian, gizartean, hezkuntzan, kulturen eta azpiegiturretan.

### 3.2. Hazkunde demografikoa eta landa- eta hiri-paisaiaren fisionomia berria

Garapen demografikoarekin, bando-gerren amaierarekin eta ahaide nagusien boterea mugatzearekin batera, harrizko baserriak eta dolare-baserriak hasi ziren agertzen Bergarako landa-paisaian, eta jauregi-arkitektura hiri-eremuan.

Dolare-baserrien egitura prentsa edo dolare erraldoi batena zen, eta estalkiari eusteko ez ezik, sagardoa egiteko ere bazen. Dolare-baserriak unitate ekonomiko autarkiko gisa sortu ziren, eta haien eraikuntzak etxebizitza-eredu berria ekarri zuen. Eredu horren arabera, produkzio-elementuak egoitza-elementuak baino garrantzitsuagoak ziren. Arkitektura horren adibideen artean, Zupide, Monasteriobide, Eduegi, Gaztelu Bekoa eta Lazpiur baserriak ditugu.

Baserri horiek eraiki zirenean, hazkunde demografikoa gertatu zen, eta gariaren eta sagarraren laborantza zabaldu. Bergaran, gutxienez hamar sagar-mota landatzen ziren, batzuk jateko eta

---

beste batzuk sagardoa egiteko (famiaren kontsumorako zein Ternuara baleak harrapatzera joaten ziren, Indietako Karrera parte hartzen zuten edo Europa iparraldeko portuekin salerosketak egiten zituzten ontziak hornitzeko). Horrela, beraz, irabazi handiak ematen zituen negozio bihurtu zen sagardoaren salmenta.

Egonkortasun politikoko giro horretan, leinuen barruan bigarren maila batean zeuden eta administrazioan edo armadan jardun zuten pertsonak eta euskal burdina eskala handian merkaturatzen zuten merkatariak aberastu egin ziren, eta arrastoa utzi zuten Bergarako hirigunean. Batzuek zein besteek etxebizitza berriak eraiki zituzten (dorretxeak eta jauregiak), eta, haien bidez, beren gizarte-nagusitasuna nabarmendu nahi izan zuten. Garai hartakoak ditugu Ondartza, Olaso, Arrese eta Laureaga dorretxeak, Ozaeta, Aroztegi eta Egiño Mallea jauregiak eta Jauregi, Iturritxo eta Azkarate Marutegi etxeak.

Landa-munduaren zein hiri-munduaren hazkundeak aldaketak eragin zituen, halaber, gizarte-harremanetan eta familien barneko harremanetan. Alde batetik, antzinako ahaide nagusietako asko merkatari eta errentadun bihurtu ziren, eta, horren ondorioz, leinu-loturak lasaitu egin ziren. Horrekin batera, desagertu egin zen ahaide nagusiek odol- eta leialtasun-lotura estuak ezartzeko zuten ezinbesteko premia. Bestetik, tronkalekotasuna jabetzaren transmisioa arautzeko erakunde gisa finkatu zen. Hau da, ondasunak seme batek jaraunsten zituen (lehen semeak, oro har), eta inguruko beste leinu-etxe edo baserri bateko ondorengoekin ahaidetzen zuten, familia-ondarea babesteko. Horretarako, ezkonberriek ezkontza-kapitulazioen kontratua sinatzen zuten. Beste batzuetan, maiorazkoaren figura juridikoa eratzen zen, lotutako ondarea ezain arrazoirengatik besterendu ezin izan zedin.

XVII. mendearen hasierako urteetan, landa-paisaia eraldatzen hasi zen berriz. Pixkanaka, sagarrondoak artoarekin eta Amerikatik iritsitako beste produktu batzuekin ordeztu ziren. Produktu horiek erraz moldatu ziren Bergarako lurrera, eta askoz errendimendu handiagoa ematen zuten hazi bakoitzeko.

Mende horretan, halaber, bertako artisau-lantegien hondoratzearen eta merkataritzakrisiaren ondorioz, lurra babes seguru bihurtu zen familia aberatsek inbertitzeko. Horrela, beraz, aristokraziak landa-eremuan jarri zuen interesa berriz ere. Azkenean, nekazaritza-aberastasuna jabe handiek sortutako maiorazkoetan bildu zen, eta jabe horiek lurra eta baserriak alokatzen zituzten. Jabe horiez gain, beren ondasunak zuzenean ustiatzen zituzten jabe txiki batzuk ere bazeuden Bergaran.

Hala ere, landa-eremuan inbertitzea arriskutsua zen, baserrietan ustekabeko suteak gertatzen baitziren maiz. Suteek, kalte pertsonalez gain, ondorio ekonomiko negatiboak eragiten zituzten baserrian bizi zirenentzat zein landa-gizarte osoarentzat. Bi modutara egin zitzaion aurre

mehatxu horri: alde batetik, arkitektura sendoagoko etxeak eraiki ziren eta, bestetik, lehen aseguru-mutualitatea sortu zen, “Hermandad de las Casas Germadas” izenekoa. Sozietate horren bidez, etxebizitza berreraikitzeko laguntza ekonomikoa ematen zitzairen kaltetuei.

Nolanahi ere, zorioneko gutxi batzuek Indietan aberastea lortu zuten, eta, Bergarara itzultzean, gizarte-aitorpena bilatu zuten eta lortutako aberastasuna agerian utzi nahi izan zuten. Horretarako, etxeak erosi edo eraiki zituzten. Haien artean, Acedo Loiola, Urrutia Espilla, Moiuia Barrena eta Izagirre Moya jauregiak, Moiuia dorrea eta Errotalde, Untzeta, Argizain, Iturbe eta Zuloaga Bereterio etxeak ditugu.

### 3.3. Bergara, komunikazioen eta merkataritzaren ardatz

Bergara merkataritza-izaera nabarmenarekin sortu zen Gaztela Arabarekin eta Kantauri Itsasoarekin lotzen zuten bi komunikazio-ardatzetako baten ondoan. Komunikazio-ardatz hori Arlabanetik iristen zen gure hiribilduko jurisdikziora, eta, bertatik, Mutrikura eta Zumaiara jarraitzen zuen, Deba ibaiaren haranean zehar. Hortaz, Bergarak kokapen estrategikoa izan zuen lehorreko bide-azpiegituren probintzia-sarean.

Bideak hobetu egin ziren, XV. mendearen amaieraz geroztik jasaten zuten ibilgailu-zirkulazio handiaren premiei erantzuteko. Agintari publikoek, XVI. mendearen amaieratik aurrera gutxienez, kezka handia agertu zuten bideak zaintzeko eta egoera onean mantentzeko, eta diru asko gastatu zuten bideak ibiltzeko moduan edukitzeko. Gainera, XVIII. mendearen erdialdean, Gipuzkoako agintariek Errege Bide berri baten eraikuntza sustatu zuten. Gipuzkoako lurraldea egituratzeko bide nagusi gisa sortu zen. Probintzia diagonalean zeharkatzen zuen, Arlabanetik Iruneraino, eta Bergaratik eta Zumarragatik igarotzen zen, Deskargako portua zeharkatuz. Geroago, Soraluzeako Errege Fabrikak eskatuta, beste adar bat egin zen. Adar hori Bergaratik abiatzen zen, eta, Soraluze, Eibar eta Elgoibar zeharkatu ondoren, Altzolako ibai-portura iristen zen.

Eskaera hori, nolanahi ere, ez zen funtsik gabekoa. Izan ere, garai hartan Deba ibaia zen haraneko komunikazio-bide nagusia, eta merkataritza-negozioa Bergarak eta Altzolak osatzen zuten binomioan ardaztuta zegoen. Lehena negoziatioetarako leku estrategikoa zen, eta bigarrena, berriz, harana zeharkatzen zuten salgaien topaleku nagusia (garia, artilea, burdin zainak edo meak, burdina eta arrantzatik eta itsas merkataritzatik iritsitako produktuak, funtsean).

Azpiegitura horiei esker, Bergarak oso leku pribilegiatua hartu zuen merkatuan. Hala ere, burdinaren krisiak, XVII. mendeko ezegonkortasun politikoak eta zerealen garestitzeak oso ondorio negatiboak izan zituzten bertako merkataritza-interesetan. Gainera, 1718. urtean,



---

Borboien monarkiak euskal foru-eskubideak suntsitu nahi izan zituen aduanak kostalderantz eramanez, eta 1766an, urritasun-garaietan muga-zerga berriak ezartzearen ondorioz, bizigaien prezioa neurritz kanpo igo zen eta beheraldi bat gertatu zen. Bi urte horietan, gipuzkoarrek kaltetuta ikusi zituzten beren interesak, eta *matxinadak* egin zituzten lurraldearen zati handi batean.

### 3.4. Ganibetak eta guraizeak, merkataritzaren osagarri ezin hobea

Gaztela eta itsasoa lotzen zituen korridorean kokatutako beste udalerrri batzuk bezala, burdinaren produktu deribatu ugariaren produkzioan espezializatu zen Bergara (armak, guraizeak eta ganibetak batez ere). Produktu horiek behar-beharrezkoak ziren etengabe hedatzen ari zen munduan.

XVI. mendearen hasierarako, gure hiribildua argi eta garbi zegoen identifikatuta ganibeten eta guraizeen industriarekin, eta lehen gremio-ordenantzak 1535. urtean onartu ziren.

Bergarako establezimenduek Arrasateko altzairuarekin, hau da, garai hartako altzairurik onenetako batekin lan egiten zuten, eta kalitate handiko produktuak egiten zituzten. Produktu horien ospeak eskualde-eremua gaingitu zuen, eta Bergara erreferentziagune bihurtu zen penintsulako eta Amerikako merkatarientzat. Horregatik, Bergarako ganibetak eta guraizeak, bertako azokan ez ezik, Gaztelako feria handietan ikus zitezkeen (hala nola Medina del Campo, Medina de Rioseco eta Villalón go ferietan) eta Gaztela eta Andaluziako hiri nagusietan ere.

Produktuen eskari handiaren ondorioz, biztanleria mugikor ugari bat iritsi zen Bergarara, lantegietako lanpostuen eskaintza betetzera edota zuzenean produktoreekin negoziatzera. Sektore horretan, zuzeneko enplegu ugari sortu ziren eskulan gisa jarduteko, baina zeharkako enplegu asko ere agertu ziren, beharrezkoak baitziren beste gai batzuk (hala nola objektu zorrotzak estali, babestu eta kokatzeko zorroak) eta merkataritza eta mandazaintzako ostatu-zerbitzuak. Hirigunean, halaber, beste artisau batzuk ere bazeuden, eta bertako biztanleen premiei erantzuten zieten. Besteak beste, harginak, arotzak, zapatariak, jostunak, okinak eta oihaigileak zeuden.

Deskribatu dugun egoera hori goitik behera aldatu zen XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera. Atzerapen teknologikoaren eta atzerriko produktuekiko lehiakortasunik ezaren ondorioz (produktu horiek merkeagoak ziren eta kalitate hobea zuten), hain oparoa izan zen industria hori krisialdi sakon batean murgildu zen. Ozta-ozta iraun zuen, Borboien monarkiak kolonietako merkatuari eta burdinaren manufakturarik babesteko sistemari eutsi zien bitartean, baina ahuldu egin zen poliki-poliki, erabat desagertu arte.

Dena dela, manufaktura hori suspertzeko saio batzuk ere egin ziren. 1766. urtean, adibidez, ganibeten konpainia bat sortu zen, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak babestuta. Konpainia hori ganibetak eta beste tresna batzuk egiteko eta nazioartean banatzeko asmoarekin sortu zen, baina babes-neurriak desagertu zirenean, ezin izan zuen lehiatu muga-zergarik ez zuten atzerriko produktuen prezioekin.

### 3.5. Hezkuntza-tradiziotik ikerketa-arloko abangoardiara

Gipuzkoan hezkuntza-tradiziorik handiena duten udalerrietako bat da Bergara, eta, nolabait ere, ideien berrikuntzaren eta modernitatearen alde egindako apustu irmoari esker, aitzindaria ere izan da hezkuntzaren arloan.

Jesuitak 1593an Bergarara iritsi eta beren ikastetxea ireki zutenetik, Euskal Herriko ikastetxerik ospetsuenetako bat izan zuen udalerriak. Bertako irakaskuntzaren kalitate handiagatik nabarmendu zen, eta Armadan eta Koroaren administrazioan kargu garrantzitsuak lortzeko aukera eman zien Bergarako gazte askori. Ikusi dugunez, batzuk jaioterrira itzuli ziren eta eraikin ederrak eraiki zituzten hirigunean. Ikastetxe horretan, kristau-ikasbidea (dakigunez, euskaraz), “lehen letrak”, gramatika eta latinitatea irakatsi ziren. Ikastetxea egungo San Martin Agirre plazan kokatuta zegoen, eta 1767. urtera arte jardun zuen. Urte horretan, jesuitak bota egin zituzten Espainiatik, matxinada orokorrak bultzatu zituztela eta atzerriko subirano bati (Aita Santuari) obediencia-boto berezia eskaini ziotela leporatuta.

Ikastetxe horren garaikidea izan zen Soledadeko Ama Birjinaren eskola eta santutegia (neskena), 1644an sortua eta Soledadeko Ama Birjinaren ermita zaintzen zuten serorek zuzendua. 1799. urtean, berriz, Mariaren Lagundia ikastetxea ireki zen, eta bi mende baino gehiagotan hezi ditu bergararrak, belaunaldiz belaunaldi.

Edonola ere, Bergarari nazioartean osperik handiena eman diona Bergarako Errege Mintegia izan da. Euskal ilustrazioaren sinboloa, Euskal Herriko zientziaren sorlekua eta herrialdearentzako pertsona baliagarriak prestatzeko zentroa izan zen. Errege Mintegia Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak sortu zuen 1776. urtean, eta erakunde abangoardista eta berrikuntzaren bultzatzailea izan zen. Halaber, garrantzitsuenetako bat izan zen kalitateko hezkuntzaren eta ikerketa zientifikoaren esparruan. Lortu zituen arrakasten zerrenda oso luzea da. Bertan, Juan José Elhuyarrek asmatutako industria-espioitzako plan bat diseinatu eta praktikan jarri zen, Karlos III.aren gobernuaren agindupean, kanoien kalitate txikiaren arazoari irtenbidea emateko. Mintegia, halaber, aitzindaria izan zen “Kimika eta Metalurgiaren” eta “Mineralogia eta Lurpeko Zientzien” irakaskuntzan, katedra bana sortu zirenean. Mintegiko laborategietan, gainera, Elhuyar anaiek wolframa aurkitu zuten, eta Chabaneauk platinoaren xaflagarritasuna

---

lortzeko metodoa asmatu zuen. Bestalde, Mintegiak lorategi botaniko bat sortu zuen, *Flora Bascongada* proiektua hasi zuen, eta mineralogiari eta beste natura-zientzia batzuei lotutako oso balio handiko bildumak egin zituen.

### 3.6. Hala eta guztiz ere... gizarte tradizionala

Aro Modernoan, Bergarako gizartea euskaraz komunikatzen zen nagusiki, eta ezaugarri tradizional nabarmenak zituen. Alde batetik, Trentoko Kontziliotik aurrera (1545-1563), gizartearen kohesioa eta batasuna gero eta neurri handiagoan oinarritu zen erlijioan eta haren gizarte-kontrollean. Joera horren goren aldia XIX. mendea izan zen. Bestetik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen pentsamendu berritzaile eta ilustratuen eragina goiko gizarte-mailetara iritsi zen batez ere (herrira oso neurri txikian iritsi zen). Gainera, gizartea estamentuetan eta hierarkikoki antolatuta zegoen, enkistamendu sozioprofesional handia zuen, eta moral-kontrol zorrotza jasaten zuen. Eta, azkenik, herritar gehienak eskolagabeak ziren.

Erljioaren presentzia nabaria zen eguneroko bizitzaren une askotan eta gizarte-harremanetan. Eliza soziabilitate-leku nagusietako bat zen. Jendea elizara joaten zen besteak ikustera eta besteen aurrean agertzera, kolektibo, familia edo etxe bat ordezkatzera edota beste sexuko pertsonekin zuhurki harremanetan jartzera. Halaber, nekazarien eta herritar xeheen aisia eta lanaren egunerokotasuna liturgia-egutegiaren arabera antolatzen ziren. Gainera, erlijio-erakundeek jaiegunak baliatzen zituzten boterea sinbolikoki erakusteko, eta herritarrek gogo biziz hartzen zuten parte, jai-izaerako ekitaldiak izaten baitziren.

Elizez gain, bergararrek beste soziabilitate-eremu batzuk zituzten negozioak egiteko, ezkontzen oinarriak finkatzeko edota aisiaz eta atsedenez gozatzeko. Haien artean, honako hauek aipa daitezke: asteko azokak (azoka-egunetan, idi-demak, zezenketak, pilota-partidak eta abar antolatzen ziren, eta familien arteko ezkontzak ere adosten ziren), herriko jaiak, tabernak (udalak kudeatzen zituen, eta gizonezkoen soziabilitate-leku nagusiak ziren), elitearen eta aristokraziaren jauregi eta etxeetan egiten ziren tertuliak, eta emakumezkoen bilgune izaten ziren garbitokiak eta iturriak.

Halaber, jaiera-izaera nabarmeneko ermandade asko sortu ziren, kideen artean errukia, barkamena eta karitatea sendotzeko (Veracruz Kofradia, adibidez), baita gremio-ermandadeak ere, kideek lanbide-eremuan elkarri laguntzeko. Azken horien artean, San Matias izenekoa zen adierazgarriena, eta ganibeten, guraizeen eta beste tresna eta arma zorrotz batzuen industriako maisuak eta ofizialak biltzen zituen.

---

# 4

---

## XIX. MENDEA

-

---

## 4. XIX. MENDEA

### 4.1. Gerrak, porrota eta ondasun publikoen pribatizazioa (1793-1839)

1793. urtetik aurrera, garai txarrak iritsi ziren Bergarara, hiru gerra bizi izan baitziren: Konbentzio Gerra (1793-1795), Independentzia Gerra (1808-1812) —biak Frantziako tropen aurka— eta I. Karlismaldia (1834-1839). Bergarako kokapen geografikoa eta Errege Mintegiak ostatu hartzeko eskaintzen zituen aukerak zirela eta, Bergara armaden gune estrategiko bihurtu zen.

Konbentzio Gerraren deklarazioari buruzko albisteak iristen ziren bitartean, probintziak 10.228 oinezko soldadu, 1.500 *dragoi* (zaldizko soldaduak) eta 272 artillari armatu zituen. Haietatik, 1.375 Bergaran kantonatuta egon ziren. Neurriak hartu baziren ere, hiribilduak Frantziako tropen bi eraso jasan zituen. Lehena 1794ko azaroan gertatu zen, eta bigarrena, berriz, hurrengo urteko uztailean.

Hain soldadu kopuru handia ikusita, agintari militarrek hornigaiak (ogia, haragia eta errazioak), ostata eta tropak antolatzeko beharrezkoak ziren gainerako laguntzak eskatu zituzten. Udalak ez zuen dirurik gastu horri aurre egiteko, eta ondasun publikoak (lurrak, etxeak eta mendiak) pribatizatu behar izan zituen. Gainera, soldaduek zuhaitzak neurririk gabe moztu zituzten herribaso eta herri-mendietan, eta harrapaketak eta suntsiketak egin zituzten ostatu hartu zuten etxebizitza partikularretan.

Egoera horrek okerrera egin zuen Independentzia Gerran, Napoleonen inbasioaren ondoren. Orduan ere, Bergarak ez zuen dirurik, eta beste kontzeju-lur batzuk hipotekatu eta/edo saldu zituen. Hortaz, pribatizazio-prozesua areagotu egin zen. Aldi berean, gizarte-gatazkak areagotu egin ziren familia askoren miseria, pobrezia eta porrotaren ondorioz.

Gerra amaitu ondoren, Antzinako Erregimenaren edo absolutismoaren defendatzaileen eta Frantziako Iraultzaren ideien edo ideia liberalen defendatzaileen joera ideologikoak finkatu egin ziren. Testuinguru horretan, Hirurteko Liberala (1820-1823) ezohiko aldia izan zen,

idea liberalak nagusitu baitziren. Hala ere, Bergaran gerraren dinamikarekin jarraitu zen, jazarpenaren mehatxua ez baitzen desagertu (Frantziak beste inbasio bat egin zuen 1823an). Egoera horretan, gauzak ez ziren asko aldatu Bergarako herritarrentzat. Izan ere, herria gotortzeko obrak egin, indar militar profesional bat mantendu eta erantzukizun eta zeregin militarrek beren gain hartu behar izan zituzten.

Urritasuna eta etengabeko mehatxua nagusi ziren giro horretan, gatazkek gora egin zuten udalerrian, eta, aldi berean, atzerriko potentzien laguntzarekin, Fernando VII.ak tronua berreskuratu zuen. Erregearen heriotzak beste faktore bat gaineratu zion egoera zailari, eta gerra sortu zen Karlosen —hots, hildako erregearen anaiaren— aldekoen eta Isabelen —hots, erregearen alabaren— aldekoen artean. Hau da, I. Karlistaldia.

Gerra hori hasi zenetik, Bergara gune estrategikotzat hartu zen, eta, beraz, haren kontrola bi bandoen helburu bihurtu zen. Horregatik, hainbat eraso eta gorabeheraren xede izan zen Bergara, Zumalakarregik 1835ean mendea hartu zuen arte.

Gerra bete-betean zegoela, hondamendi natural batek areagotu egin zituen Bergarako herritarren gabeziak. 1834ko ekainaren 30ean, txingor-erauntsi batek goi-eremuetako uztak suntsitu zituen, eta ondorengo euri-jasarekin, errekek eta ibaiek gainezka egin zuten. Deba ibaiko uholdearen ondorioz, 22 pertsona hil ziren, eta suntsiketa ugari gertatu ziren eraikin, etxe, errota, zubi eta elizetan, baita adobe-fabrika batean ere. Auzorik kaltetuenak Zubieta-Mugartza, San Antonio, Osintxu eta Zubiaurre izan ziren.

Bergaran ostatu hartu zuten bi bandoen tropak eta Errege Mintegian ezarri zen ospitale militarra mantentzeko kostuen, familia dirudunen ihesaren, nahitaezko errekrutatzeen, beste herri batzuetatik iritsitako mantenuaren eta 1834ko uholdeek (*San Martzial urek*) kaltetu zutenaren berreraikuntzaren ondorioz, bergararrak muturreko pobrezia-egoeran geratu ziren. Horregatik, 1839an *Begarako Besarkadarekin* (hots, Espartero jeneral isabeldarraren eta Maroto jeneral karlistaren artean sinatutako hitzarmenarekin) gerra amaitu zenean, poza izan zen nagusi hasiera batean.

*Begarako Besarkadaren* ondorioz, euskal probintziek foru-eskubide batzuk galdu zituzten (foru-baimena eta aduanak), baina udalen aukeraketari lotutako alderdiak, Batzar Nagusien eta diputatu nagusien izendapena, zerga-alderdiak, hitzarmen ekonomikoa eta zerbitzu militarren salbuespena kudeatzen jarraitu ahal izan zuten.

---

## 4.2. Garai berri baten hasiera (1840-1850)

### 4.2.1. Lehen industria modernoak Bergaran (1840-1850)

I. Karlistaldia amaitu ondoren, Esparterok 1841eko urriaren 29ko dekretua eman zuen. Dekretu horren bidez, aduanak Frantziako mugara eraman ziren, eta probintzia Estatuko merkaturatua txertatuta geratu zen. Handik aurrera, Gaztelara esportatzen ziren euskal produktuek ez zuten atzerrietasun-eskubiderik ordaindu, nolabaiteko babesa lortu zuten atzerriko produktuen aurrean, eta hornitu beharreko merkatu zabal bat ireki zitzairen.

Egoera berriak negozio-aukera berriak ireki zituen, eta gipuzkoar eta kanpotar (katalan, aragoiar, frantses eta abar) askok fabrika modernoak sorkuntzan inbertitu zuten. Gipuzkoako industrializazio-prozesuaren hasiera izan zen, eta siderometalurgian, ehungintzan eta papergintzan oinarritu zen. Bergararen aukerak bikainak ziren, aipatutako hiru sektoreetako bi (ehungintza eta siderometalurgia) onuragarriak eta errentagarriak izan baitziren bertan.

Ehungintza modernoa “La Algodonera San Antonio” konpainiaren eskutik iritsi zen Bergarara. 1846ko urtarrilaren 23an sortu zen “Frois, Silva, Blanc y Cía” izenarekin. 300 langileko plantilla izan zuen, eta erresistentzia eta iraupen handiko kotoi-ehuna produzitzen zuen eskala handian. Produktu horrekin, herritar xeheek erabiltzen zituzten laneko arropak eta espartinak egiten ziren. Halaber, bi aldeetatik estanpatutako oihalak lantzen espezializatu zen. Oihal horiek “Bergara urdinez” tindatzen zituzten, eta ospe handia izan zuten nazioartean. 1850. urtean, saria lortu zuten Madrilgo Industria Ferian.

Bestalde, metalurgiaren sektorea geroago garatu zen Bergaran. Lehen fabrika modernoek 1860ko hamarkadan ordeztu zuten siderurgia tradizionala behin betiko.

Industriaren ikuskera berriak eta, haren ondorioz, produkzio-teknika berriek eta langileak establezimendu bakar batean biltzeak artisautzan oinarritutakoak bestelako egitura sozioprofesional baten sorrera eragin zuten. Ehungintzaren indarra dela eta, fabriketan lan egiten zuten emakume gehien zituzten herrietako bat izan zen Bergara. Zehazki, *La Algodonera* fabrikako langileen erdiak baino gehiago emakumeak ziren, eta, haietatik, askok 30 urte baino gutxiago zituzten. Enpresa horretan, halaber, haur askok lan egiten zuten, eskulan merkea zirelako eta, garaieragatik, makineria garbitzeko egokienak zirelako.

---

#### 4.2.2. Landa-jabetza eskuratzeko aukera eta Amerikako laboreen arrakasta

Udal-ogasuna pobretzearen ondorioz, kontzeju-lurren zati handi bat jarri zen merkatuan, eta udal-jabetzaren kalterako lurraren jabetza pribatua sustatu zenean, nekazaritza-eredua eta jabetza-eredua berritu egin ziren. Horren erakusgarri, I. Karlistaldia amaitu ondoren oso neurri handian igo zen landutako lursailen kopurua, baserri gehiago eraiki ziren, eta laboreen paisaia aldatu egin zen.

XIX. mendearen erdialderako, aurreko mendeetan pixkanaka sartu ziren laboreak ziren nagusi. Udal Artxiboko dokumentuen arabera, artoa zen labore nagusia Bergarako soroetan, gariaren eta artatxikiaren aurretik. Garai hartan, gainera, labore berriak sartu ziren, hala nola patatak, tomateak, babarrunak eta piperrak. Amerikako produktuak ziren guztiak, eta garai hartako bergararren janari-dietan txertatu ziren. Aldi berean, sagarrondoek eta bertako beste fruta-arbola batzuek atzera egin zuten poliki-poliki.

Horrek guztiak hazkunde demografiko handia bultzatu zuen.



---

# 5

---

## BERGARA MODERNITATERANTZ (1860-1936)

-

---

## 5. BERGARA MODERNITATERANTZ (1860-1936)

XIX. mendearen azken herenean, hiri-eremua erabat nagusitu zitzaion landa-eremuari, bigarren sektoreak lehenak baino garrantzi handiagoa hartu zuen, trenbidea iristean komunikazioak nabarmen hobetu ziren, hiribilduaren hiri-fisionomia aldatu zen, hiribildua zerbitzu eta azpiegitura berriez hornitu zen, biztanle kopuruak gora egin zuen nabarmen, sanitatea hobetu zen, gizarte-balio eta ideologia berriak agertu ziren, irakaskuntza berritu zen eta, azken batean, Bergara aro berri baterantz abiatu zen.

### 5.1. Zerbitzu berriak, ekipamendu berriak

Lehen Karlistaldiaren ondoren, zerbitzu berriak ezartzen hasi ziren, eta, aldi berean, Bergarak bere pentsamoldea aldatu zuen, baita bere fisionomia ere, eraikin publiko berrien eraikuntzarekin. Matxiategiko udal-hilerria egungo kokalekuan eraiki zen, 1855ean, eta hirigunetik urrun zegoen garai hartan. Egungo Ariznoa plazan, Epaitegia eta espetxea eraiki ziren 1870ean, Bergara Gipuzkoako lau auzitegi-barrutietako bat izendatu baitzuten 1841ean. Plazaren itxura aldatu egin zen 1868an, Errege Mintegiko fatxada berritu zenean, baita 1901ean ere, azokako eraikina eraiki zenean. Zementu armatzuko egitura zuen lehen higiezina izan zen probintzian.

Hezkuntzak ere beste bultzada bat izan zuen. San Pedro plazako eskolak ireki ziren, eta Errege Mintegiko instalazioak zabaldu egin ziren 1866an, probintziako Bigarren Hezkuntzako Institutua eta Industria Eskola bertan kokatzeko.

Gizarte-laguntzari dagokionez, 1855ean Bergarako Ospitale Santua inauguratu zen. Hasiera batean, umezurtzak, haur abandonatuak eta irauteko baliabide propiorik ez zuten adinekoak hartzeko eta haiei laguntzeko eginkizuna bete zuen. Ospitalea serorek zuzendu zuten hasieratik, eta hamarkada batzuen ondoren osasun-zerbitzuak ere izan zituen:

---

larrialdietarako klinika (1926), tuberkulosiaren kontrako anbulatorio industrialia (1952) eta amatasun-saila (1954).

Higienearen arloan, bestalde, garbitoki publiko berriak eraiki ziren eta Pol-Pol iturriko urak Iriburuko urandel berrira eramateko proiektua garatu zen. Urandela 1902. urtean inauguratu zen, eta, hari esker, udan iturri eta garbitokietan izaten zen urritasunari aurre egin ahal izan zitzaion eta etxebizitzan ur-hornidura modernoa hasi ahal izan zen.

Aisiarako ekipamendu publikoa ere berritu egin zen. Bergaran bola-jokoan aritzen zirela diote 1559. urteko dokumentuek, eta 1892an bolatoki berri bat egin zen, pilotalekuaren ondoan. Garai hartan, halaber, hiri-lorategiak egiteko proiektuak sortu ziren, eta gaur egun ere ikus daitezke batzuk. 1862. urtean, Bideberri pasealeku berriko zuhaitzak landatu ziren, eta 1872an, berriz, Mintegi edo Espoloia kalea hornitu zen zuhaitzez, musikako kiosko batekin.

## 5.2. Industrializazioaren finkatzea

1860ko hamarkadan, ehungintzaren eskutik iritsi zen industria-berrikuntzaren lehen etaparen ondoren, metalurgia-sektoreko industrializazioaren lehen zantzuak agertzen hasi ziren Deba ibarrean. Ziklo hori honako konpainia hauekin hasi zen: “Compañía Euzkalduna” (1862, Soraluze) eta “Vergarajaúregui, Rezusta y Cía”, hau da, geroago “Unión Cerrajera” izan zena (1869, Arrasate). *La Algodonera* konpainiarentzat, ordea, oso urte zailak izan ziren, fabrikak kapitalizazio-arazoak baitzituen.

Urte batzuk geroago, Bergarako Labe Garaiak (“Unión Cerrajera” fabrikaren filiala) finkatu zen Ibarra auzoan, eta sektoreko lehen enpresa modernoa izan zen. Gipuzkoako kapitalarekin osatuta zegoen oso-osorik. 120 langile baino gehiagoko plantilla izan zuen hasieran, eta *La Cerrajera* konpainiarako lehengaiak fabrikatzen zuen. Enpresa horrek energiarekin eta produktuen garraioarekin zituen arazoak konpondu zituen, eta hazkunde-prozesu bat bizi izan zuen XX. mendearen lehen hamarkadetan. Horren ondorioz, plantilla handitu egin zen (ehunka gizonek lan egiten zuten) eta ijezketa-pabiloi bat eraiki zen (1926).

Halaber, Bergarako hainbat lantegi tamaina ertain eta txikiko fabrika bihurtu ziren, eta ehungintzako makinak konpondu eta tresnak eta piezak egiten zituzten. Haien artean, Eguren eta Ramón González de Audicana aipa daitezke.

Ongialdi ekonomikoko giro horretan, mahoi urdinezko laneko arroparen eskaria nabarmen igo zen, eta horrek bultzada handia eman zion Bergarako ehungintza-sektoreari. Hala ere, *La Algodonera* ez zegoen bakarrik ordurako, eta lantegi sortu berriak zituen lehiakide, hala

nola “Gregorio Fernández y Sobrino” eta “Hijos de Arturo Narbaiza”. Halaber, beste produkzio-  
adar batzuetan (hala nola larruaren, espartinen eta oinetakoen adarretan) ziharduten beste  
negozio batzuk sortu ziren.

### 5.3. Lanbide Heziketaren aldeko apustua

Antzinakoa zen Bergarak hezkuntzaren eta ikerketaren eremuan zuen aitorpena eta ospea, eta  
XIX. mendearen erdialdean areagotu egin zen, puntako udalerrria izan baitzen lanbide-heziketan.

Eta berri hori 1850. urtean hasi zen Bergarako Industria Eskolaren sorrerarekin, hain zuzen  
ere lehen industria modernoak ezarri ziren garaian. Egungo ingeniari-tza-  
eskolaren baliokidea zen, eta kategoria horretako Estatuko lau prestakuntza-  
zentroetako bat izan zen; gainerako hirurak Madrilan, Bartzelonan eta Sevillan  
zeuden. 1861ean ministro-agindu bidez industria-  
eskola guztiak bertan behera utzi ziren arte iraun zuen. Arte eta Lanbide  
Eskolak (1903-1928) jarraitu zuen haren lanarekin. Eskolak Aldundiaren  
diru-laguntzak jasotzen zituen, eta ikasleek Marrazketako eta Aritmetika  
eta Geometriako titulazioak lor zitzaizketen bertan.

1928ko abenduko Estatutu Profesionalak sartutako aldaketan bidez, Lanbide  
Heziketak beste maila bat hartu zuen Bergaran, Bergarako Oinarrizko Lanbide  
eta Ehungintza Eskola (*Escuela Elemental*) sortu zenean. Eskola horren  
inaugurazioak sendotu egin zuen udalerriko lanbide-heziketa. Hasiera-  
hasieratik, irakaskuntzaren kalitateak eta irakaskuntza-programa  
industria-sektorearen premietara eta eskarira egokitzeak izan zuten  
lehentasuna. Hortaz, aitzindaria izan zen enpresa-eremua eta  
hezkuntza-eremua uztartzen. Gerra Zibilaren urteetan, atak itxi  
zituen, eta orduan amaitu zen Eskolaren ibilbidearen lehen etapa.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar Bergarak oinarrizko eskola-  
eskaintza handia izan zuela. Mariaren Lagundiaren (neskentzat)  
eta 1880. urteaz geroztik domingotarrek zuzentzen zuten Errege  
Mintegiaren (mutilentzat) erlijiosoen ikastetxeetan ematen zen  
irakaskuntzaz gain, XX. mendearen hasieran doako irakaskuntza  
ematen zen sei eskolatan (Estatuko bi eskolatan eta lau udal-  
eskolatan). Halaber, landa-auzoetako eskolak eta eskola pribatu  
txiki batzuk zeuden.

### 5.4. Trenbidea Bergaran (1888-1919)

Trenbideak iraultza handia eragin zuen garraioaren sektorean. Izan ere,  
trenbideari esker, bolumen eta pisu handiko salgaiak urrutirago,  
askoz bizkorrago eta garraio-kostu txikiagoekin garraiatu  
ahal izan ziren. Distantziaren kontzeptu berri bat sortu zen  
trenbidearekin.

---

Trena 1888an iritsi zen Bergarara, “Ferrocarriles Vascongados” konpainiaren Durango-Zumarraga linearekin. 1919an, berriz, Gasteiz eta Bergara lotu zituen “Ferrocarril Vasco-Navarro” izenekoaren tartea inauguratu zen. Bi linea horiek elkarri lotuta zeuden Mekolalden, eta, beraz, gure herria Gipuzkoako barne-komunikazioen gune nagusietako bat izan zen berriz. Bi lineak kontuan hartuta, Bergarak 6 geltoki izan zituen: *Osintxu, Mekolalde, Bergarako Geltokia, Ola, Elorregi eta Goiko estazioa*.

Trenbideak zerbitzu ona eman zien Bergarako enpresei eta herritarrei, 1970 inguruan bi lineak itxi ziren arte.

## 5.5. Bergararen fisionomiaren eraldaketa

Bergaran XIX. mendearen erdialdean hasi zen hirigintza-aldaketa ez zen zerbitzu berrien sorrerari soilik lotuta egon. Industrializazioak aurrera egin ahala, Bergarako landa-eremuaren zein hiri-eremuaren fisionomian zuen eragina nabarmenagoa izan zen.

Lehen aldaketa garrantzitsuak landa-eremuetan gertatu ziren, ehungintza-fabrika modernoak ezarri zirenean. Enpresarik garrantzitsuenak (*La Algodonera*, “Movilla, Fernández, Cía” eta Bergarako Labe Garaiak) San Antonion eta Ibarralden kokatu zituzten beren instalazioak (bertan beren jarduerarako beharrezkoak ziren ur-emariak aurkitu zituztelako, besteak beste). Beste industria-establezimendu batzuk Osintxun, Mugertzan, Mekolalden eta Ozaetan ezarri ziren. Horrela, beraz, nekazaritza-lurzuak pabiloi, lantegi, biltegi, ikaztegi eta abarrekin ordeztu ziren. Gainera, jarduera berriak herritarren bizimodua baldintzatu zuen. Alde batetik, baserriko lana bertan behera utzi zen, eta, bestetik, emakumeen lan-eremua familiarik fabrikara aldatu zen. Hau da, lehen sektoreko eskulan aktiboa industria-sektorerara joan zen.

Eredu sozioekonomikoaren aldaketa horrek eragin handia izan zuen inguruko dinamika demografikoan. Bizi-kalitatearen hobekuntzarekin, biztanle kopuruak gora egin zuen eta, gainera, jende asko etorri zen Bergarara, bertako fabriketan lan egitera. Herritar guztiak hartzeko etxebizitzak eraiki ziren, eta hiri-eremua zabaldu egin zen. XIX. mendearen erdialdean bertan, San Antonio auzoa hazi zen, bertan *La Algodonera* kokatu zenean. Herriak eskaintzen zituen zerbitzuek eta industriarako eskulanaren eskariak bultzatu egin zuten beste auzo batzuk Bergaran txertatzea (*Angiozar eta Ubera 1927an*). Horren ondorioz, udal-mugartea handitu egin zen.

Edonola ere, hedapenik handiena XX. mendearen bigarren erdialdean gertatu zen, auzo berriak sortu zirenean, hala nola Martokoa, Zabalotegi, San Lorentzo, Matxiategi (1950-1960) eta, ondoren, Bolua (1980).

Hazkunde demografikoaren eta hiri-hazkundearen ondorioz, zerbitzu gehiago eta konplexuagoak behar izan ziren (argiztapena, uraren hornidura eta banaketa, saneamendua, zolaketa eta abar), eta, horri esker, beste batzuk modernizatu ziren. Matxiategi auzoaren urbanizazioarekin, eskola-ekipamendu eta kirol-ekipamendu berrietarako lurzorua sortu zen. Anbulatorioa Matxiategiko eraikin berri batera eraman zen, eta, horri esker, antzinako ospitaleko instalazioak berritu eta Mizpirualde egoitza sortu zen.

XX. mendearen bigarren erdialdean, Bergarako eta eskualdeko hirigintza- eta industria-garapenarekin batera, ibilgailuen zirkulazioak gora egin zuen nabarmen, eta bide-azpiegiturak hobetu egin ziren, hala nola Elosuko errepidea 60ko hamarkadaren erdialdean eta Bergarako saihesbidea 80ko hamarkadan.

Deskribatutako eredia ia ez zen aldatu 80ko hamarkadako krisialdia iritsi arte. Handik aurrera, korrante migratzaileak negatiboak izaten hasi ziren eta hazkundera gutxienera mailetara jaitsi zen. Hala ere, XX. mendearen amaieran, Bergarak beste hiri-zabalkuntza handi bat izan zuen hirigune historikotik hurbil, egungo Ibargarai hiribidearen inguruan.

## 5.6. Ideologia berriak Bergarako eremu politikoan

1872tik 1876ra bitarte, beste gerra bat bizi izan zuen Euskal Herriak: II. Karlistaldia. Gatazkak 7.000-50.000 hildako eragin zituen, eta karlisten tropek porrot egin ondoren, subiranotasuna berreskuratzeko asmoa zapuztuta geratu zen euskaldunentzat. Gainera, Espainiako zentralismoa sendotu egin zen, eta Cánovas del Castillo presidentek foruak abolitu zituen behin betiko.

Gerra amaitu ondoren, areagotu egin zen urte batzuk lehenago hasitako industrializazio-prozesua. Prozesu horren bidez, Bergarako fisionomia aldatzeaz gain, aldaketa handiak gertatu ziren gizarte-egituran, eta ideologia eta alderdi politiko berriak sortu ziren, herrian oso eragin desberdina izan bazuten ere. Aldi berean, karlistek beren ahalmenaren zati handi bat galdu zuten gerran porrot egin izanaren ondorioz, baina indar handia izan zuten Gerra Zibila iritsi arte.

Alde batetik, nazionalismoa zegoen. Udalerrian bizkor finkatu zen, hasiera batean afiliatu gutxi izan eta errepresioa eta intolerantzia jasan behar izan bazituen ere.

Begarako nazionalistak oso aktiboak izan ziren hasieratik. EAJ/PNV alderdiaren lehen bileretan parte hartu zuten, eta Bergarako Batzokia sortu zuten 1904an. Donostiako Euskal

---

Zentroaren atzetik, alderdiak Gipuzkoan izan zuen lehen zentro soziala izan zen. 1909an, udal-hauteskundeetan parte hartu zuten lehen aldiz, baina ez zuten lortu udal-gobernuan ordezkari izateko behar adinako boto kopururik. Ezin da esan emaitza hori porrota izan zenik. Handik gutxira, Bergarako gizarte zibilaren tresna bihurtu eta, besteak beste, antzerki-taldeak, dantza-taldeak edo kirol-taldeak sortu ondoren, nazionalismoak indar handia hartu zuen. Primo de Riveraren diktadurara arte eta II. Errepublikaren aldian, eraturako udal guztietan izan ziren zinegotzi nazionalistak, eta, zenbait alditan, gehiengo ere lortu zuten eta alkateetza haien esku geratu zen. Lehen alkate nazionalista Iñaki Unzeta izan zen, 1920an.

Bestalde, langile-mugimendua eta ezkerreko alderdiak zeuden. Euskal Herrian gizarte-gatazka egon baziren ere, Bergara *bake sozialeko giro* batean bizi izan zen (langileek 1919an 8 orduko lanaldia eskatzeko egindako greba orokorra salbuetsita), ugazaben eta langileen arteko harremanak *paternalista* samarrak izan zirelako, etorkinak batera iritsi ez zirelako eta industria askotako langileak inguruko landa-eremukoak zirelako nagusiki. Testuinguru horretan, sozialistek eta ezkerreko gainerako alderdiek ia ez zuten lekurik Bergarako politika-eremuan, eta ez zuten aurrera egiten.

1923. urtean, Primo de Riveraren diktadorearekin, nazionalistak klandestinitatean geratu ziren, eta barne-krisi bat bizi izan zuten. Azkenean, haustura gertatu zen, eta bi alderdi sortu ziren, “Comuni3n” eta “Aberri”. 1930ean, diktadoreak boterea galdu zuenean, nazionalistak politikaren eremura itzuli ziren, eta bi alderdiek irtenbide bat bilatu zuten Bergarako Batzokian egin zen Batzarrean. Batzar horretan, EAJ/PNV siglak hartuta elkartu ziren berriz, eta alderdia bideratzeaz arduratu zen nazionalista-belaunaldi berri bat sortu zen. Haien artean, Telesforo Monzon bergararra zegoen. Batasun horren aurkako talde batek eragindako zatiketaren ondorioz, EAE/ANV alderdia sortu zen, eta beste bergarar bat izan zen protagonista alderdi horretan: Justo Garate.

II. Errepublikaren garaian demokrazia berreskuratu ondoren, nazionalistek Bergarako udal-hauteskundeak irabazi zituzten 1931n, 1933an eta 1936an. Halaber, aktiboki hartu zuten parte Lizarrako Estatutuaren proiektuan eta Gorteek 1936an —Gerra Zibila hasita zegoela— onartu zuten Estatutuaren idazkuntzan.

Errepublikaren azken hilabeteak oso gogorrak izan ziren udalerrian, eta gatazka politiko eta sozial handiak sortu ziren, eskuin karlista-tradizionalista konspiratzen hasi baitzen Errepublikaren kontrako balizko altxamenduren batekin bat egiteko.

---

# 6

---

## GERRA ZIBILA

-



---

## 6. GERRA ZIBILA

Santa Marina jaietan izan zuen jendeak altxamendu militarren berri. Oso gutxi zeuden armak hartzeko prest, Bergarako herritar gehienek bakea nahi baitzuten. Hala ere, matxinatuei aurre egiteko antolatu ziren. Bando batean eta bestean zenbat aritu ziren ikertu izan da, eta, kalkulaturakoaren arabera, 700 gizon borrokatu ziren; haietako 200 Errepublikaren aldeko boluntarioak izan ziren, eta gainerakoek, berriz, frankisten bandoan jardun zuten (azken haietako gehienak “kinten” deialdietan errekrutatu zituzten). Gerraren zirkunstantzien ondorioz, izan ziren elkarren kontra aritu ziren anaiak ere.

Abuztuaren hasieran, “Errepublikaren Defentsarako Batzordea” eratu zen matxinatuei aurre egiteko. Hiribilduko alkate Ignacio Zubizarretak zuzendu zuen, eta EAJ, ELA, UGT, Alderdi Sozialista, errepublikanoak eta komunistak zeuden ordezkaturak. Ezer gutxirako balio izan zuen, ordea. Matxinatutako tropek, Mola jeneralaren agintepean, 1936ko irailaren 21ean menderatu zuten Bergara. Ordurako, herritarren % 15ek ihes egin zuten. Egun horretan bertan hasi ziren espetxeratzeak eta fusilamenduak.

Handik egun gutxi batzuetara, Udal berria osatu zen. Luis Ruiz de la Pradak zuzendu zuen, eta oso udal-agindu gogorrek onartu zituen garbiketa politikoa egiteko: ihes egin zutenak salatzea (eta salatzen ez zutenak zigortzea), udal-langileen eta irakasleen garbiketa egitea, ondasunak konfiskatzea, euskara bultzatzeko diru-laguntzak kentzea, eskarnio publikoa, espetxeratzeak, fusilamenduak, emakumeei ilea larru-arras moztea eta abar.

1936ko urritik 1937ko apirilaren 24ra bitarte, matxinatuen hainbat batailo, konpainia eta tertzio egon ziren kantonatuta Bergaran, eta Franco bera ere hurbildu zen, Intxortako gudari eta milizianoen frontea hausteko asmoz. Errepublikaren defendatzaileek uste baino denbora luzeagoan eutsi zioten, eta frontea gelditi egon zen zazpi hilabetetan. Bergarak bonbardaketaren bat edo beste jasan zuen, baina Elgeta suntsitu egin zuten.

Gerraren ondorioak oso gogorrak izan ziren. Bergarako herritarren % 26k ordaindu zituzten, modu batean edo bestean, gerraren eta okupazioaren ondorioak (erbestea, fusilamenduak, espetxeratzeak, ondasunen konfiskatzeak, garbiketak, kaleratzeak eta abar). Urte haietako erabaki tamalgarrien artean, enpresak militarizatu egin ziren (*Unión Cerrajerera*, besteak beste), eta Franco hiribilduko ohorezko alkate izendatu zuten.

# 7

---

## FRANKISMOTIK DEMOKRAZIARA

-

---

## 7. FRANKISMOTIK DEMOKRAZIARA

### 7.1. Kulturaren sustapena eta garapen ekonomikoa: bi errealitate elkarri lotuta

Errepublikanoek gerra galdu eta Francoren diktadura ezarri ondoren, Bergarako herritarren lehenetsunak eguneroko bizitzarekin jarraitzea, suspertze ekonomikoa eta hezkuntzarekiko kezka —*Eskola Elementala* berriz ireki zen— izan ziren, besteak beste, eta pobreziatik ihes egiteko modu bat prestakuntza zela ikusi zuten.

*Elementalean* irakaskuntzari berriz ekiteko lehen urratsak 1940. urtean egin ziren, Patronatu berria eratu zenean. Ondoren, 1941. urtean, Udalak instalazio berriak udal-garbitokiaren lurretan eraikitzeko baimena eman zuen, eta Eskolak 1944an ireki zituen berriz ateak, “Lanbide Eskola” (“Escuela de Trabajo”) izenarekin. 1955. urtean, beste fase bat hasi zen eskolarentzat. Izena aldatu zen (“Industria Maisutzako Eskola” izan zen aurrerantzean) eta ikasketa-plan berria ezarri zen. Ordurako, *Eskola Elementala* erreferentziazko zentro bihurtu zen bere adarrean. Oso ospetsua zen ikasleek jasotzen zuten prestaketa onagatik, irakaskuntza-programa inguruan poliki-poliki sortzen ari zen industria-sarearen premietara egokitu eta bideratzeagatik eta inguruko enpresaburuekiko lankidetzeta estuagatik. Askoz geroago, demokraziaren garaian (1990ean), kalitatearen aldeko apustu irmoa egin zuen, eta UNE-ISO 9001-20006 ziurtagiria lortu zuten lehenengoetako bat izan zen. Halaber, eskualdeko enpresekin lankidetzeta handiagoa lortzen ahalegindu zen. Gaur egun, Miguel Altuna Institutua da, eta ekipamendu berriak izango ditu aurki, puntako teknologia garatzeko eta abian dituen proiektu ugariak gauzatzeko.

Erlijosoen ikastetxeetan (Mariaren Lagundian eta Mintegian) ematen zen irakaskuntzaz gain, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko eskolak agertu ziren XX. mendearen erdialdean, generoaren arabera banatuak. Zehazki, epaitegiko eraikineko etxeban mutilei ematen zitzaizkien eskolak, eta azokako eraikinean, berriz, sexu bakoitzerako ikasgelak antolatu ziren. Z u b i e tak,

---

Martokoak eta beste auzo batzuek ere (batzuk landa-eremuak) izan zituzten eskolak. 70eko hamarkadaren hasieran, irakaskuntza publikoko eraikin berriak inauguratu ziren Matxiategin. Mutilen ikastetxea San Martin Agirre izan zen, eta neskena, berriz, Martínez de Irala. 1971. urtean, batxilergoko institutua eraiki zen.

Testuinguru horretan, 1970ean Aranzadi ikastola jarri zen berriz abian (aurrekari bat izan zuen Errepublikaren garaian). Ikasgela mistoak zituen, eta lehen urratsak Komenio eta Bidekurutzetako lokaletan egin ondoren, Errege Mintegiaren eraikinean finkatu zen, artean aita domingotarrek kudeatzen zutela.

Bergaran, edonola ere, konpondu gabeko arazo batzuk zeuden oraindik. Horietako bat unibertsitatea zen. Goi-mailako ikasketen eskaintza 1976an osatu zen, UNEDek egoitza bat Bergaran ezarri zuenean. Lizentzia ugari eskaini zituen Arte eta Giza Zientzien, Zientzia Sozial eta Juridikoen eta Ingeniaritzaren arloetan. Edonola ere, programa akademikoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izan zen bertako Euskara Sailak egindako lana. Alde batetik, abian jarri zituen ekimenek gizartean izan zuten eraginagatik; bestetik, Bergarako euskara ikertu, suspertu eta zaintzeko lanetan liderra izateagatik.

Ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak estu horri esker, 70eko hamarkadako krisiaren ondorioak txikiagoak izan ziren Bergaran, eta herriko langabezia-tasak ere beste industria-udalerririk batzuetakoak baino txikiagoak izan ziren. Hala ere, hori guztia ez zen nahikoa izan langile-mugimenduaren hazkunderaren eta diktaduratik demokraziarako trantsizioak ekarritako aukeren eta zalantzen ondorioz bizi zen tirabira sozial eta politikoa baretzeko.

## 7.2. 1970-1980 hamarkadako herritar-mugimendua: esperientzia berezia

Begarako herritar-mugimendua esperientzia berezia izan zen, eta diktaduraren gainbeheraren eta demokraziarako trantsizio politiko ahularen garaian sortu zen. Urte haietan, errepresio politiko eta sozial handia, tirabira soziala eta krisi ekonomikoa bizi zen, administrazio-erakundeak baztertu egiten ziren, ekipamendu kolektiboak falta ziren, eta proiektu politiko eta sozialak erruz sortu ziren.

Politika egiteko era berria izan zen, herritarrak beren zerbitzu eta jardueren eragile eta hartzaile bihurtu baitziren. Udal-kudeatzaileen orientazio politikoaren eta ideologiaren defentsaren gainetik, gizarte-kohesioari eta/edo herritarren bizikidetzari eman zitzaion lehentasuna. Tokiko mugimendua izan zen, baina Bergarako mugak gainditu zituen. Halaber, herri-mugimendua izan zen, haren helburuek herritar asko inplikatu eta mobilizatu baitzituzten. Gainera, berezko

eta borondatezko mugimendua izan zen, ekintzak hezkuntza, gizarte eta osasunaren arloko oinarritzko zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko egin baitziren. Kultur Ekintza eta Alkartu-Nai elkarteak eta Udala bera izan zituen oinarri.

Herritarrek erabakiak hartzeko eta kultura, gizarte, laguntza, hirigintza edo toki-garapenaren arloko proposamenak egiteko zereginen inplikatzeko eta herritarrek udalerrriaren eta bertako azpiegituren diseinuan parte hartzea lortu zen. Horri lotuta, herriko kide izatearen sentimendua sortu zen, eta hiru alderditan legitimatu zen: bizi-kalitatearen hobekuntzan, kulturaren dinamizazioan eta demokrazia politikoaren aldeko borrokan.

Mugimenduak askotariko jarduerak sustatu zituen. Haietako batzuk Errege Mintegiaren eraikinean egin ziren, eta honako hauek azpimarra daitezke: Zientzien Museoa (egungo *Laboratorium* Museoa) sortzeko proposamena, *Ariz-Ondo* aldizkaria abian jartzea, anbulantzia bat erostea, Zaharren Egoitza, Alargunen Elkartea, Gazte Elkartea, Ume-Alaia haurtzaindegia eta ikastola sortzea, Mariaren Lagundia ikastetxean eta bigarren hezkuntzako institutuan euskara sustatzea, eskola publikoan irakaskuntzaren kalitatea hobetzea, *Eskola Elementalaren* gogo-oinarriak idaztea, unibertsitate-zentro bat ezartzea, desgaitasun intelektualak, entzumen-degaitasunak edo garuneko paralisia zuten pertsonentzako hezkuntza bereziko zentroyen premiei erantzutea eta haietzako lan-tailer egokiak sortzea (San Migel Patronatua –ATZEGI–, ARANSKI, ASPACE, GUREAK tailer babestua, ELBARRI-LAN – GUREAK tailer babestua) eta psikologia-kabinete bat eta ikusmena berreskuratzeko zentro bat sortzea. Gauza miragarria izan zen.

1979an lehen udal demokratikoa hautatu ondoren, Bergarako Kultur Ekintza eta Alkartu-nai elkarten jarduerak behera egin zuen administrazio publikoak jarduera horiek guztiak kudeatzeko erantzukizuna bere gain hartu ahala.

### 7.3. “Bergarako Alkateen Taldea” (1975-1979) eta udal-hauteskunde demokratikoak

Franco hil ondoren, “Bergarako Alkateen Taldea” sortu zen, alkate edo zinegotzi frankistak (gobernadoreak berak nahierara aukeratuak) herriko bozeramaileekin ordeztzeko asmoz. Bultzatzaileetako bat Bergarako alkate Jose Luis Elkoro izan zen, eta hortik datorkio izena taldeari.

“Tertzio familiar” frankistak udalerriko zinegotzi izateko aukera ematen zien herri-mugimendu eta herri-elkarteetako pertsona batzuei, eta taldeko kide gehienak aukera hori baliatuta iritsi

---

ziren udaletara. Taldekideek herritarren eskaerak jaso eta udal osoko bilkuretan aurkeztu zituzten jendaurrean. Eskaera horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: euskal foruen aldarrikapena (abolizioaren mendeurrena zela eta), udaletxeetako balkoietan ikurrinak jartzea, ETAko presoen amnistia edo Nafarroa eta Euskadi batzea.

1979an demokrazia berreskuratu ondoren, Bergarak herri *abertzalea* dela erakutsi du hauteskunderaz hauteskunde. Hauteskunde guztietan, ideologia abertzaleko alderdiak izan dira nagusi. Zehazki, EAJ-PNV alderdia 7 alditan izan da garaile, eta HB (1987an), EAE-ANV (2007an) eta BILDU (2011n) aldi banatan. *Abertzaletasun* hori herriaren gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan islatuta eta proiektatuta geratu da.

## 7.4. Kulturaren aldeko apustu irmoa.

Bergara kultura-tradizio eta arte-tradizio handiko herria da, eta tradizio horrek nabarmen bereizi du udalerrria beste herri batzuetatik. Izan ere, ikastetxeen, kultura-erakunde pribatuen eta udal-agintarien arteko itunak kulturaren eta artean jarduteko giro egokia eta beharrezkoak diren baliabideak eskaini ditu.

Udalerrriak ia bi mende bete dituen Udal Banda bat dauka, eta Gerra Zibilean ere ez zen desegin. Denborarekin, hainbat oztopo gainditu behar izan ditu, eta gaur egun sasoi onean dago. 1985. urtera arte kontserbatoriorik egon ez zenez gero, bandako zuzendariak eta musikariak aritu ziren gazteei erakusten. Egoera hori Bergarako Musika Eskola ireki zenean aldatu zen. Irakaskuntza-eskaintza zabala zuen, eta 28 instrumentu eta euskal dantzak ikasteko aukera eman zuen.

Era berean, kultura artistikoaren transmisioan funtsezkoa izan da bertako artista batzuen lana. Beste askoren artean, Simon Arrieta pintorea (1915-1969) azpimarra daiteke. Artearekiko gustua helarazten jakin zuen, eta pintura gauza duintzat har zedin lagundu zuen. Izan ere, garai hartan, pintoreak txotxongilolarien pare jartzen ziren. Zinema ere hiribilduko ohiko arte-adierazpenetako bat izan da 1959. urteaz geroztik.

Edonola ere, Bergarak kulturaren munduari egin dion ekarpenik handienetako bat euskararen aldeko mugimendua izan da, milaka urteko hizkuntza honen hiztunen kopuruak etengabe gora egitea eragin duena. Bergarak euskalki propioa dauka bizkaieraren barruan, eta, 1970eko hamarkadaz geroztik, kultura-ekimen eta prestakuntza-ekimen ugari jarri ditu abian euskara eguneroko bizitzan normalizatzeko eta ikasteko: EKD Euskal Kultur Departamentua, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia ikastola eta eskola publiko guztiak.

---

Ezin dugu ahaztu azken kultura-proiektuetako bat, oso asmo handikoa: *Laboratorium Museoa*. 2015eko irailean inauguratu zen hainbat hamarkadako lanaren ondoren, eta Errege Mintegiko zientzia-bildumak eta tresnak eta Mintegiaren historia osoan egindako zientzia-lana berreskuratzeke, zaintzeko eta ezagutzera emateko balio izan du.

Honelako testu batean Bergarako kultura-jarduera osoaren berri ematea ezinezkoa da, alde batetik jarduera horren historia ez delako behar adina aztertu, eta, bestetik, udalerrian musikaren, kantuaren, dantzaren, pinturaren, antzerkiaren, zinemaren eta abarren eremuetan lan egin duten eta lanean jarraitzen duten diziplinak, taldeak eta elkarteak askotarikoak direlako.

Gauza bera gertatzen da kirolarekin. Ideien munduarekin gertatu zen bezala, kirol-modalitaterik tradizionalenei beste batzuk gaineratu zitzaizkien XX. mendearen hasieran (futbola, txirrindularitza eta abar), eta erabat asimilatuta daude gaur egun. Herri-kirola, pilota, mendizaletasuna, futbola, txirrindularitza, atletismoa, eskubaloia, basketa, xakea, igeriketa, arte martzialak eta abar egin eta sustatu dira udalerrian.

XX. mende osoan, kultura eta kirola elkartzeko, lan egiteko eta gozatzeko arrazoi izan dira Bergarako herritar askorentzat, gaur egun bezalaxe. Gure gizartean hain garrantzitsuak izan diren eremu horiei buruzko azterketa historikoa egin beharra dago oraindik.

Jakina, gertaera asko izan dira Bergara 1268ko uztailaren 30ean sortu zenetik. Gertakariak eta historiak erakusten dutenez, ezaugarri bereizgarri propioak dituen herria da Bergara, eta sentsibilitate berezia agertu du arte- eta kultura-ondarea zaintzeko, industria-udalerria izanik ere. Gainera, aitzindaria izan da ikerketa zientifikoan (Errege Mintegiarekin), industrietan emakumeen eta gizonen antzeko kopuru bat kontratatzeke ekimenean eta kalitateko lanbide-heziketaren eta herritar-mugimenduaren aldeko apustuan. Halaber, euskararen eta euskal kulturaren defendatzaile sutsua izan da eta, zenbaitetan, ospe handia izan du nazioartean.

*Bergaran, 2017ko azaroaren 30a*



---

## Abiapuntua eta ekarpena:

Miguel Angel Alvarez

Juan Martin Elexpuru

Miguel Angel Elkoroberezibar

Andoni Larrañaga

Jose M<sup>a</sup> Larrañaga

Patxi Larrañaga

Xabier Larrañaga


Juan Madariaga

Anaje Narbaiza

*Eskerrik asko gure historiaren mugarriak herritar guztiontzat jasotzeko egindako lanagatik!*



*VILLANUEVA DE  
VERGARAREN  
SORRERA ETA  
HIRI-GUTUNA  
1268*



## VILLANUEVA DE VERGARAREN SORRERA ETA HIRI-GUTUNA 1268

### 1. Bergararen sorrera garai hartako Gipuzkoako testuinguruan

Erdi Aroan, hiribilduen sorrera izan zuen oinarri Gipuzkoako lurralde-antolakuntzak. Gure probintzian, berandu hasi zen prozesua, Europakoarekin eta Iberiar Penintsulako gainerako lurraldeetakoarekin alderatuz gero: 1180an sortu zuen Donostia Antso Jakituna Nafarroako erregeak, eta hura izan zen abiapuntua; amaiera, berriz, 1453an iritsi zen, Oiartzungo bailarari hiribildu-titulua eman ziotenean.

Bergarari dagokionez, Gaztelak egungo Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeak konkistatu ondoren sortu zen. Zehazki, Gaztelako Alfontso X.a Jakitunak sortu zuen, ofizialki, 1268ko uztailaren 30ean, Ariznoa izeneko lekuan, eta Villanueva de Vergara izena jarri zion.

Helburu bikoitza izan ohi zuen hiribilduen sorrerak: alde batetik, ekonomikoa. Bergarari zegokionez, Deba eta Mutrikuko portuekin Gasteiz lotzen zuen Errege Bidean etapa seguru bat behar zen; beraz, merkatari- eta artisau-sena ia-ia berezkoak zituen hiribildu berriak. Beste alde batetik, helburu politikoa ere bazuen sorrerak, jaunen boterea apaltzeko tresna egokia baitziren hiribilduak erregearentzat.

### 2. Villanueva de Vergarako hiri-gutuna

Hiri Gutunaren idaztea eta ematea izaten zen hiribilduen sorrera ofizial egiteko modua. Erregeak sinatzen zuen agiria, eta garaiko agintariek berresten, idazkiaren egiazkotasuna bermatzeko.

Emailleen eta hartzaileen arteko kontratu-izaera zuten dokumentu haiek; hau da, erregeren boterearen eta herriak lehendik zeuzkan eta hiribildu berriak erakartzen zituen biztanleen arteko itun-izaera. Eskubide eta pribilegio batzuk ematen zizkien gutunak herritarrei, bai eta Erdi

---

Aroko jaunetatik babesteko lege-estaldura ere. Gutunak mugatu egiten zuen jaunen boterea, eta erregeak, berriz, berea sendotu. Ez dezagun ahantzi Erdi Aroko zenbait jaun Nafarroako koroaren aldekoak zirela XV. mendera arte.

Bergarako hiri-gutunak ez zuen berariaz jasotzen zer eskubide, pribilegio eta arau zegozkien hango biztanleei: antzeko beste batzuei bezala, “foru” bat eman zitzaion hiribildu berriari. Lehendik idatzia eta erabilia zen forua, eta han zeuden xehetasun guztiak. “Gasteizko Forua” deritzonaz ari gara.

Gasteizko Foruak 49 agindu edo artikulua zituen, bi multzotan sailkatuta. Birpopulatzearen baldintzei buruzkoa zen lehenbizikoa, hots, hiribildu berriko biztanleen eskubide eta betebeharren gainekoa. Bigarrena, berriz, herriaren antolamenduari buruzkoa zen: kontzejuak, merkataritzaren erregulazioa, zuzenbide penala eta prozesala...


Nolanahi zela ere, estatus juridiko oso onuragarria ematen zien Foruak Bergarako herritarrei alderdi penal zein prozesalei eta merkataritzari zegokienez; hori zela eta, ez zuen zaila biztanle berriak erakartzea. Zehazkiago adierazita:

a) Alor prozesalean: galarazi egiten zuen inor etxean atxilotzea, eta mugatu judizioz kanpoko atxilotetak; debekatu egiten zuen dolu judiziala, eta froga bakartzat lekukotasuna eta zinpeko adierazpena onartzen zituen; berme prozesalak ezartzen zituen atxilotzen ziren herritarrentzat; bitartekaritza-lana egiten zuten auzitegiak ezartzen zituen beste leku batzuetako jendearekiko auziak ebazteko, eta tasak ordaintzetik salbuetsi egiten zituen alkateak eta borrhoroak (aguazilak, zigorkariak), herriko boterearen sendogarri.

b) Alor penalari zegokionez, gogor zigortzen zituen inori eragindako kalteak eta lesioak, eta ohorearen aurkako erasoak.

c) Arlo komertzialean, berriz, merkataritza-askatasuna eta merkataritza-bakea ezartzen zituen, bai eta merkatarien erreklamazioak bermatzeko prozedura azkar bat ere: horrez gain, herritarren arteko bermeak ezartzen zituen, eta salbuetsi egiten zuen “otorra” (gauza baten jabetza besterentzen zuen pertsona) ondasun higigarriak ordaintzetik (demandarik izanez gero, aski zen zinpeko adierazpena); bestalde, urtea eta eguna ezartzen zituen ondasun higiezinak (lurrak, batez ere) erosteko.

Halaber, salbuespen garrantzizkoak jasotzen zituen Foruak; besteak beste, «sayonia» zeritzona (gerran ematen zen zerbitzu pertsonala); “anubda” (zaintza eta guardia militarren obligazioak ez betetzeagatik ordaintzen zen isuna); “mañería” (ondorengo legitimorik utzi gabe hiltzen zirenen oinordeko izateko erregeek eta jaunek zuten eskubidea); zidorra edo “vereda” (onura



publikoko obra eta zerbitzuetarako nahitaezko zerbitzu pertsonala) eta ate-zerga —“portazgo”, toki jakin batetik igarotzeko ordaindu beharreko tasak—, bai eta larre-, ur-, egur- eta errota-askatasuna ere.

Privilegio horren gauzatzea bermatzeko, “coto mill morabedis” (“coto” mila marabediko tasa) zeritzon zigorra ezarri zuen erregeak hura urratzen zen aldi bakoitzerako.

### 3. Villanueva de Vergarako hiri-gutunaren transkripzioa

*(Crismón: Christus, Alfa y Omega) Sepana quantos este privilegio vieren e oyeren cuemo nos, don Alfonso, por la gracia de Dios, rey de Castiella, de Toledo, de Leon, de Gallizia, de Sevilla, de Cordova, de Murcia, de Iahen e del Algarve, en uno con la rey- / na donna Yolantc, mi mugier, e con nuestros fijos, el infante don Fernando, primero e heredero, e con don Sancho e don Pedro e don Iohan e don Iaymes, por sabor que avemos de fazer una puebla en Vergara e sen- / naladamientre en aquel logar que dizen Ariznia, a que ponemos nonbre Villanueva, e por fazer bien e merced a los pobladores que agora y son e seran dyaqui adelante, damosles e otorgamosles el fuero que han los de Vitoria. E man- / damos e deffendemos que ninguno non sea osado de ir contra este privilegio pora crebantarlo ni pora [menguarlo] en ninguna cosa, ca qualquier que lo fiziesse, avrie nuestra ira e pecharnos y e en coto mill morabedis e a los pobladores del logar sobredicho / o a quien su voz toviessse, todo el danno doblado. E porque esto sea firme e estable, mandamos seellar este privilegio con nuestro seello de plo[mo]. Fecho el privilegio en Sevilla por nuestro mandado, lunes, treynta dias andados del mes de iulio, en era de mill e trezientos / e sey annos. Ed nos, el sobredicho rey don Alfonso, regnant en uno con la reyna donna Yolantf, mi mugier, e con nuestros fijos el infante don Fernando, primero e heredero, e con don Sancho e don Pedro e don Iohan e don Iaymes, en Castiella, / en Toledo, en Leon, en Gallizia, en Sevilla, en Cordova, en Murcia, en Iahen, en Baeça, en Badaloz e en el Algarve, otorgamos estle privilegio e confirmamoslo. /*

*Don Sancho, arçobispo de/ Toledo e/ chanceler del rey, confirma.*

*/Don Remondo,/ arçobispo de Sevilla,/ confirma.*

*Don Alfonso de Molina confirma./ Don Felipp confirma./ Don Loys confirma./*

*Don Yugo, duc de Bergonna, vassallo del rey, confirma./ Don [Henrri], duc de Lorregne, vassallo del rey, confirma./ Don Alfonso, fijo del rey Iohan d'Acre, enperador de [Const]antinopla, e de la enperadriz donna/ Berenguella, comde d'O, vassallo del rey, confirma./*

*Don Loys, fijo del enperador e de la enperadriz sobredichos, comde de Belmont, vassallo del rey, confirma./*

---

*Iohan, fiio del enperador e de la enperadriz sobredichos, comde de Montfort, vassallo del rey, confirma./*

*Don Gaston, bizcomde de Beart, vassallo del rey, confirma./*

(Erdian, gutxi gorabehera: Alfonso X.aren gurrpil-zeinua)

(Zeinuaren barruko zirkuluan: gurutzea)

(Zeinuaren tarteko zirkuluan,) *SIGNO DEL REY DON ALFONSO.*

(Zeinuaren kanpoko zirkuluan) *EL INFANTE DON MANUEL, ERMANO DEL REY E SU ALFEREZ, CONFIRMA. EL INFANTE DON FERRANDO, FIIO MAYOR DEL REY E SU MAYORDOMO, CONFIRMA.*

(Lehenengo zutabea)


*Don Iohan, electo de Burgos, confirma./ Don Alffonso, obispo de Palencia, confirma./ Don Ferrando, obispo de Segovia, confirma./ Don Andres, obispo de Siguença, confirma./ Don Agostin, obispo de Osma, confirma./ Don Pedro, obispo de Cuenca, confirma./ Don fray Domingo, obispo de Avila, confirma./ Don Vivian, obispo de Calahorra, confirma./ Don Ferrando, obispo de Cordova, confirma./ Don Pedro, electo de Plazencia, confirma./ Don Pasqual, obispo de Iahen, confirma./ Don fray Pedro, obispo de/ Cartagena, confirma./ Don fray Iohan, obispo de [Cadiz], confirma./ Don Iohan Gonçalvez, maestre de la/ Orden de Calatrava, confirma./*

(Bigarren zutabea)

*Don Nunno Gonçalvez confirma./ Don Alffonso [T]hellez confirma./ Don Iohan Alffonso confirma./ Don Ferrando Royz de Castro confirma./ Don Iohan Garcia confirma./ Don Diag Sanchez confirma./ Don Gil Garcia confirma./ Don Pedro Cornel confirma./ Don Gomez Royz confirma./ Don Rodrigo Rodriguez confirma./ Don Henrique Perez,/ repostero mayor del rey, confirma./*

(Hirugarren zutabea)

*Don Martin, obispo de Leon, confirma./ Don Pedro, obispo de Oviedo, confirma./ Don Suero, obispo de Çamora, confirma./ La eglesia de Salamanca vaga./ Don Erman, obispo de Astorga, confirma./ Don Domingo, obispo de Cibdat, confirma./ Don Miguel, obispo de Lugo, confirma./ Don Iohan, obispo de Orense, confirma./ Don Gil, obispo de Tuy, confirma./ Don Munno, obispo de Mendonnedo, confirma./ Don Ferrando, obispo de Coria, confirma./ La eglesia de Silves vaga./ Don fray Lorenzo, obispo de Badaloz, confirma./ Don Pelay Perez, maestre de la/ Orden de Sanctiago, confirma./ Don Garcia Ferrandez, maestre de la/ Orden del Alcantara, confirma./ Don Iohan Eanes, maestre de la Orden del Temple, confirma./ Don Gutier Suarez, adelantado mayor de Leon, confirma./ Don Estevan Ferrandez,*



---

*adelantado mayor de Gallizia, confirma./ Maestre Iohan Alffonso, notario del rey en Leon e arcidiano de Sanctiago, confirma./*

(Laugarren zutabea)

*Don Alffonso Ferrandez, / fiio del rey, confirma./ Don Rodrig Alffonso confirma./ Don Martin Alffonso confirma./ Don Iohan Perez confirma./ Don Gil Martinez confirma./ Don Martin Gil confirma./ Don Iohan Ferrandez confirma./ Don Ramir Diaz confirma./ Don Ramir Rodriguez confirma./ Don Alvar Diaz confirma./ Don Alffonso Garcia, adelantado mayor de Tierra de Murcia e del Andaluzia, confirma./ Iohan Perez de Cibdat lo fizo por mandado de [Millan] Perez de A[ellon], en el anno diez e seteno que el/ rey don Alfonsoi regno./ (Plikaren atzealdean) Gil Gomez.¹*

---

<sup>1</sup> CRESPO RICO, Miguel A.; CRUZ MUNDET, J. Ramón; GÓMEZ LAGO, J. Manuel; LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; LEMA PUEYO, J. Angel: Bergarako Udal Artxibategiko dokumentu-bilduma. I. liburukia (1181-1497), in Euskal Herriko Erdi Aroko Dokumentu Iturrien Bilduma, 57. zk.: Eusko Ikaskuntza, Donostia 1995.